

## **UDALTZAINGOARENTZAKO LAU IBILGAILU (HIRU PATRUILA AUTO ETA 4 x 4 IBILGAILU BAT) RENTING SISTEMAREN BIDEZ ALOKATZEKO BALDINTZA TEKNIKOAK.**

---

### **1. ARTIKULUA - KONTRATUAREN XEDEA.**

Baldintza tekniko hauek jasotzen dituen kontratuaren xedea da Donostiako Udaltzaingoiari 3 patrulla auto (1. taldea) eta 4 x 4 ibilgailu bat (2. taldea) alokairuan ematea (Renting sistema). Partikula, CO2 eta bestelako errekontza gasen maila baxuak dituzten ibilgailuak izan behar dute, eta ingurumena gehiago errespetatzen duten mantentze lanak behar dituztenak.

Enpresa esleipendunak alokairu hornikuntza hobetu ahal izango du kostu berean, baldintza berekin eta eskainitakoen marka eta modelo bereko ibilgailuekin.

### **2. ARTIKULUA - IBILGAILUEN EZAUGARRI OROKORRAK (1 ETA 2 TALDEAK).**

#### **IBILGAILUEN EZAUGARRI TEKNIKOAK.**

#### **1. TALDEA (PATRUILA AUTOAK).**

Gutxienez, ezaugarri hauek bete beharko dituzte eskainitako ibilgailuek:

- Ibilgailu mota: turismoa.
- Eserleku kopurua: bost.
- Ate kopurua: bost.
- 100 g/km-tik beherako gas isurketak dituen motorra.
- Erregai: Energia sistema bikoitza, motorizazio bikoitzekoa (termikoa eta elektrikoa) eta bateria bidezko % 100eko trakzio elektrikoa duena (ez abiatzean bakarrik).
- Potentzia: 130 CVkoa edo gehiagokoa.
- 55 A/Htik gorako bateria, konektatzen diren eta ibilgailuarenak ez diren gailu guztiak deskonektatzeko gailu tenporizatua duena (2 ordu), bateria deskargarik ez izateko, eta bateriaren tentsioa murriztean deskonektatzen den gailua duena.
- Abiadura kaxa: eskuzkoa edo automatikoa.
- Direkzioa: lagundurikoa.
- Itxiera: bateratua.
- Kristal jasogailua: elektrikoak aurreko ateetan eta atzekoetan, atzekoak blokeatzeko aukera dutenak.
- Kristal antitermikoak.
- Balaztatze sistema: lagundua, ez blokeatzeko edo antzeko sistema duena.

- Gutxienerako ekipamendua: airbagak, kanpoko ispiluak.
- Trakzioa egonkortzeko kontrol sistema elektronikoak.
- Aire girotua, klimatizagailua edo antzekoa.
- Pintura: Ibilgailuek zuriak izan behar dute eta Udaltzaingoaren eranskailuekin errotulatuta egon behar dute.
- Poluzioa: Euro 5 edo goragokoen arabera homologatua.

Ibilgailuen deskribapen xehatua jasotzen duen dokumentua ere aurkeztu beharko da esleipenen lehiaketa publikora.

## **2. TALDEA: (4 X 4 TRAKZIOKO LUR OROTAKO IBILGAILUA)**

Gutxienez, ezaugarri hauek bete beharko dituzte eskainitako ibilgailuek:

- Ibilgailu mota: turismoa - lur orotakoa.
- Eserleku kopurua: bost.
- Ate kopurua: bost.
- 2.000 cc-tik gorako zilindrada.
- 118 g/km-tik beherako gas isurketak dituen motorra.
- Erregaia: Energia sistema bikoitza, motorizazio bikoitzekoa (termikoa eta elektrikoa) eta bateria bidezko % 100eko trakzio elektrikoa duena (ez abiatzean bakarrik).
- Potentzia: 160 CVkoa edo gehiagokoa.
- 55 A/Htik gorako bateria, konektatzen diren eta ibilgailuarenak ez diren gailu guztiak deskonektatzeko gailu tenporizatua duena (2 ordu), bateria deskargarik ez izateko, eta bateriaren tentsioa murriztean deskonektatzen den gailua duena.
- Abiadura kaxa: eskuzkoa edo automatikoa.
- Direkzioa: lagundurikoa.
- 4x4 trakzio sistema
- Itxiera: bateratua.
- Kristal jasogailua: elektrikoak aurreko ateetan eta atzekoetan, atzekoak blokeatzeko aukera dutenak.
- Kristal antitermikoak.
- Balaztatze sistema: lagundua, ez blokeatzeko edo antzeko sistema duena.
- Gutxienerako ekipamendua: airbagak, kanpoko ispiluak.
- Trakzioa egonkortzeko kontrol sistema elektronikoak.
- Aire girotua, klimatizagailua edo antzekoa.
- Pintura: Ibilgailuek zuriak izan behar dute eta Udaltzaingoaren eranskailuekin errotulatuta egon behar dute.
- Poluzioa: Euro 5 edo goragokoen arabera homologatua.
- Gutxienez 1.500 kg atoian eramateko gaitasuna duena (balaztarekin).

Ibilgailuen deskribapen xehatua jasotzen duen dokumentua ere aurkeztu beharko da esleipenen lehiaketa publikora.

## 2.2. **KARROZERIA ETA EKIPAMENDUA.**

Eskatutako elementuak instalatzeko orduan, erakunde esleipendunak kontuan izan beharko du udaltzainek martxan jarri beharreko aginteak eta haien jardunean interpretatu beharreko seinaleak ondo instalatuta daudela, akatsak, nekea eta istripuak murriztu ahal izateko.

Elementu guztiek indarrean dagoen legeria bete beharko dute, bai ibilgailuetan jartzean bete beharreko homologazioen aldetik, bai poliziaren ohiko ekipamenduan duten kokapenaren aldetik, eta indarrean dagoen legerian zehazturiko funtzionamendu eta irisgarritasun baldintzak ere bete beharko dituzte.

### **PATRUILA AUTOAK ETA LUR OROTAKOAK**

- a. Aurrealdeko eserlekuek bizkarralde inklinatua eta buru euskarria izan behar dute, eta gidariaren eserlekuaren altuerak erregulagarria izan behar du.
- a. Gomazko alfonbra txikiak ibilgailuaren aurrealdean eta atzealdean.
- b. Erregai tangaren tapoia, giltzaz irekitzen dena edo barrutik irekitzen dena.
- c. Altueran eta sakoneran erregula daitekeen bolantea.
- d. Kristalek tindatuak izan behar dute, eta atzeko ateetako eta maletategiko kristalek babes geruza ilun homologatu eta ziurtatua izan behar dute, IATA gainditu ahal izateko.
- e. Atzerako ispilu elektrikoak eta termikoak.
- f. Ibilgailuek ezaugarri hauetako igorgailu bat (irradi transmisorea) izan behar dute:

Ekipoa: Udaltzaingoaren gaur egungo irradi flota osoak Eusko Jaurlaritzaren Barne Sareko TETRA estandarrekin funtzionatzen duenez eta ibilgailuen modelo estandarra Motorola MTM5400 duenez, eskainitako irradi ekipoa Eusko

Jaurlaritzako Barne Sailaren ekipo gisa egon beharko du homologatuta eta aipaturiko TMT5400 ekipoaren funtzionalitateak eta baldintzak bete beharko ditu.

- TEA2 enkriptazio aktiboa,
- GPS posizionamendua,
- Gateway
- Urruneko kontroleko burua
- Antena: TETRA + GPS

Igorgailua elikatzeke kablea: 2,5 mm<sup>2</sup>-ko kable paralelo gorri eta beltza.

-Eskainitako ekipoak gaur egun Udaltzaingoak erabiltzen dituen marka, modelo edo bertsioetakoak ez badira, Eusko Jaurlaritzako Barne Sailak onartutakoak izan beharko dute. Ekipo horiek gaur egungo ekipoenak baino ezaugarri hobek izan beharko dituzte eta eskatutako informazio eta programazio elementuak izan beharko dituzte.

-Aginte mahaian finkatutako eta ibilgailuaren sistema elektrikoari zuzenean konektatutako kargagailua, gaur egungo irrati eramangarriaren modeloa birkargatzeko.

h Kontratu honen xede diren ibilgailuen bidez, OCR irakurketa eskaini nahi zaio Udaltzaingoari. Hori dela eta, kontratatutako ibilgailu guztiek izan beharreko PC modeloak ezaugarri hauek izan beharko ditu gutxienez:

PC

1. I7 4 nukleo prozesagailua, 8 sum prozesu, 2 Ghz. edo gehiagokoa
1. Intel HD Graphics 3000 edo gehiagokoa
2. 8 GB edo gehiagoko RAM memoria
3. 160 GB edo gehiagoko disko gogorra
4. 5.1 edo gehiagoko soinu txartela
5. 12V DC-ko elikadura
6. Gehienez 175 mm x 175 mm x 60 mm-koa.
7. UIZk homologatutako sistema eragilea
8. 0° eta 40° arteko funtzionamendu tenperatura

#### GUTXIENeko KONEKTIBITATEA

9. COM-232
- 10.1 DVI-I
- 11.1 HDMI

- 12.4 USB 2,0
- 13.2 USB 3,0
- 14.1 LAN
- 15. Audio irteera eta sarrera

#### ROUTERa (ibilgailu guztietan berdina)

- 1. 4 Ethernet 10/100 ataka
- 1. 3G eta 4Gko gaitasuna
- 2. Wifi802.11n modulua edo gehiagokoa
- 3. UMTS/HSPA/HSUPA/LTE 4G
- 4. VPN: L2TP/PPTP/IPSEC VPN pass-through
- 5. 12V DC-ko elikadura.
- 6. Neurria, gehienez: 195 x 112 x 24 mm.

#### PANTAILA (ibilgailu guztietan berdina)

- 1. Ukipen pantaila kapazitiboa
- 1. 10,1 hazbeteko tamaina
- 2. Formatua 16:9
- 3. Bereizmena: 1024 x 600
- 4. Ikusmen angelua 140°H, 110°V edo gehiagokoa
- 5. 250 edo gehiagoko distira (cd/m<sup>2</sup>)
- 6. Kontraste ratioa: 500:1 edo handiagoa
- 7. Bideo sarrerak (HDMI, DVI, VGA, bideo konposatua)
- 8. Audio eta bozgorailu sarrera
- 9. 12V DC-ko elikadura
- 10. -20° eta +60° bitarteko funtzionamendu tenperatura
- 11. Kolore beltza edo aginte mahaiaren kolorearen antzekoa

#### TEKLATUA (ibilgailu guztietan berdina)

- 1. PC kable bidezko USB konexioa
- 1. 78 tekla
- 2. Gaztelaniaz lan egiteko homologatua (ñ letraduna)
- 3. Zurruna, beltza
- 4. 78 tekla
- 5. Neurria, gehienez: 285 X 125 X 22 mm

6. Ibilgailuaren egiturara lotua

7. KAMERAK

OCR KAMERA

- 1 IPT konexio mota, IP konexio mota
1. Sareko interfazea: 10Mbps / 100Mbps Base-T, RJ-45
2. Video Streaming-a: RTP/HTTP, RTP/TCP, RTP/UDP, Multicast
3. 3Dko soinu murrizketa
4. 2D WDR<sub>c</sub>
5. PTZ digitala
6. Zoom digitala
7. Day & Night (IR cut removable)
8. ONVIF bateragarria
9. Gutxienez 30 metroko argiztapen infragorria
10. Matrikulua irakurketarekin bateragarria (LPR)
11. Gaueko/eguneko konfigurazio independentea
12. IP66 babes maila edo handiagoa
13. Argi barran edo haren azpian instalatua
14. PCra konektatua edo irudiak urrunetik eta denbora errealean Udaltzaingoaren instalazioetara bidaltzeko gaitasuna duena
15. 12V DC-ko elikadura.

GPS HARGAILUA

Matrikulak ezagutzeko gailua duten bi ibilgailuek GPS hargailuak izan behar dituzte, eta hargailu horietako matrikulen ezagutza sistemek gutxienezko ezaugarri batzuk izan beharko dituzte.

1. GPS txipa: SIRF Star IV edo handiagoa
2. 48 kanal
3. 2.0 USB konexioa, 1,5 metrokoa
4. Babes indizea: IPX6
5. Funtzionamendu tenperatura: -40° + 80°.
6. Sistema eragile bateragarria: Windows 7/8.

### BATERIA OSAGARRIA (ibilgailu guztietan berdina)

1. Ibilgailuaren ekipamendu guztiak kontuan izanda, ibilgailuarena ez den bateria osagarri bat izan beharko dute, gutxienez 150 w-ko kargakoa, eta bateria horrek gaitasuna izan behar du ibilgailuko ekipamendu guztiak gutxienez hiru orduz eta era autonomoan funtzionatu ahal izateko.
2. Bateria hori ibilgailuaren instalaziotik kargatu beharko da, eta, kontaktua kendu ondoren, ekipo guztiak instalazio horretatik elikatu beharko dute.

### INSTALAZIOA (ibilgailu guztietan berdina)

#### 1 PCak funtzionatu egin behar du:

- Ibilgailua itzalita dagoenean eta ibilgailua martxan jartzen denean
- 60 minutuz konektatuta mantentzeko gai izan behar du, ibilgailuari giltza kendu arren, bateria osagarritik elikatuz. PCa denbora horretan itzalita egon ondoren, modu kontrolatuan egingo da.
- Piztuta dagoen bitartean, babestuta egon behar du ibilgailuaren abioen aurrean.

1. PCa keta Router-ak ibilgailuaren maletategiko armairu batean instalatuta eta babestuta egon behar dute, giltzaz itxita.
2. Armairu horrek hozte sistema bat izan beharko du (termostatoa, haizagailuak eta 12V/47AH-ko erreserba bateriak).
3. Autoan daudenek ikusiko ez duten kable bat instalatu beharko da maletategitik teklatura, pantaila eta IP kamera dauden lekura.
4. Periferikoak instalatzeko, gutxienez (5) USB kable instalatu beharko dira maletategitik aginte mahaira.
5. Bateriatik aginte mahaira korrante hargune bat instalatu beharko da, beste gailu batzuk kargatzeko.
6. Tentsioa baxua denean bateria deskonektatzeko aukera izan behar du zirkuituak.
7. Zirkuituak ordenagailua automatikoki, erabiltzaileak ezer ere egin gabe, abiatzeko eta itzaltzeko etete tenporizadorea izan behar du, gutxienez hogeitun minutuko atzerapena duena.

8. **Gidariaren lekuan ordenagailua pizteko eta Reseterako agintea instalatu beharko dira.**

- h. Udaltzaingoaren flotan daudenen antzeko polizia zubia, dagokion moduan homologatua. Zati hauek izan beharko ditu: led urdinak dituzten bi koroa; led urdinak dituzten bi multzo aurrealdean; lau foku aurrealdean; lau foku alboetan; atzeko barra, anbar koloreko ledak dituzten norabidezko zortzi argirekin osatua; aurrealdeko lau foku gorri; sirena anplifikadore bat, zubian txertatua; argi laburra eta sabaiko konektorea.
- i. Led urdinezko bi foku, ibilgailuaren aurrealdean txertatuta, eta, atzealdean, led urdinezko bi foku, maletategian txertatuta. Bi argi horiek maletategia irekita dagoenean bakarrik aktibatu behar dute.
- j. Bi polizia linterna, kono eta kargagailuak barne. Ezaugarri hauek izan behar dituzte linternek:

Kolore beltza.

- 80 gr-tik beherako pisua.
- Gutxienez 10 watt eta 3 LED dituen bonbilla halogenoa.
- Berriz karga daitezkeena.
- Argi halogenoak 80 minututik gora funtzionatu behar du.

k. Su itzalgailu baten euskarria, 6 kg-koa.

RESPOL

l. Repsol Móvil kontsulta postua erabiltzeko lizentzia (Udaltzaingoaren Repsol AFIS sistemaren hedadura).

m. Sehaska kargagailuak. Ibilgailuan txertatuta egon behar dute, eta ibilgailuaren sistema elektrikora zuzenean konektatuta egon behar dute, irakurgailua birkargatzeko.

Donostiako Udaltzaingoa beste osagarri eta/edo ekipamendu batzuk instalatu ahal izango ditu, esleipendunari jakinarazi ondoren. Elementu horiek instalatzeko, mantentzeko edo konpontzeko gastuak Donostiako Udalak ordainduko ditu.

Ibilgailuek ez dute izan behar ez irrati arruntik ez CD irakurgailurik.

### 2.3 ORDEZKOAK.

Ibilgailu bakoitzak bi triangulu, txaleko homologatuak eta elurretan ibiltzeko bi zorro edo sistema homologatu izan behar ditu. Elurretan ibiltzeko zorro edo sistemek azkar muntatzeko eta desmuntatzeko modukoak izan behar dute; ez ohiko kate metalikoak.



### **3. ARTIKULUA - KONTRATISTAREN OBLIGAZIOAK ETA ALOKAIJUAREN BALDINTZAK.**

Alokairuak ezaugarri hauek izango ditu:

#### **IBILGAILUEN BALDINTZAK.**

Ibilgailuek egoera ezin hobean egon behar dute beti, teknikoki nahiz administratiboki, ibilgailuak ohiko moduan eta legez erabili ahal izateko.

Ibilgailu bakoitzak urtean kilometro kopuru hau egingo duela kalkulatu da:

1. TALDEA: 25.000 km.
2. TALDEA: 25.000 km.

bat | Kilometro kopuru hori gainditzen duen kilometro bakoitzeko edo ibilgailuak akats duela egindako kilometro bakoitzeko prezioa zehaztu behar du esleipendunak.

#### **MANTENTZE LANAK.**

Erakunde alokatzaileak ibilgailuaren markako kontzesionarioen artetik hautatzen duen kontzesionarioak ibilgailu osoaren mantentze lanez arduratu behar du; hautaketa hori Udaltzaingoaren zuzendaritzak onartu beharko du. Tailerrek espazio nahikoa izan behar dute ibilgailuak leku itxi eta seguruan eduki ahal izateko, eta ez partikularren eskueran, bistako segurtasun neurriak direla eta.

Hona hemen ibilgailuek tailerretan egin beharreko denborak:

- Ibilgailuaren markak mantentze lanei buruzko liburuan zehaztutako berrikuspen guztiak egin behar dira (ordezkoak, likidoak nahiz eskulana), fabrikatzailearen berme epean egon ala ez egon. Horiek 24 orduetan egin beharko dira.
- Ibilgailu bakoitzaren eta gailu osagarrien erabileraren ondorioz izandako matxuren konponketak hiru lanegunetan egin beharko dira.
- Txapa eta pintura konponketa garrantzitsuetan, ez dute geldirik egon behar zazpi lanegun baino gehiago, istripua peritatzen denetik kontaktzen hasita.
- Trafiko Zuzendaritza Nagusiak zehazturiko arauen arabera ordezkatu beharko dira pneumatikoak, edo segurtasunagatik beharrezkoa den bakoitzean. Kasu guztietan, 30.000 km egin baino lehen aldatu beharko dira.
- Udaltzaingoko langileek —kontrol lanak egiten dituztenek— konponketak gainbegiratu ahal izango dituzte.

Ez dira mantentze lanen barruan sartzen, eta, beraz, errentariaren ardura izango da autoa garbitzea eta behar duen erregai botatzea.

Ibilgailuek dituzten eta ibilgailuaren fabrikatzaileak jartzen ez dituen gailu osagarrien kasuan (argi zubia, igorgailua, GPSa, eta abar), erakunde esleipendunak, Udaltzaingoa onartuta, zehaztuko du zeintzuk diren horien mantentze lanak egiteko zerbitzu tekniko eskudunak, zeintzuk arduratuko diren elementu horiek mantentzeaz eta ordezkatzaz eta horien euskarri teknikoaz (kableak, eskulana, muntaia, eta abar).

Ibilgailuen zerbitzu ezaugarri bereziak kontuan izanik, mantentze lantzat hartuko dira eta, beraz, esleipendunak konpondu eta ordezkatu beharko ditu erabileragatik hondatzen diren auto barruko elementuak (adibidez, eguzkitakoak, eragingailuak —leihoak, berogailua, airea... —, eserlekuak, alfombra txikiak, pedalen gomak eta gainerako elementuak).

Halaber, mantentze lantzat hartzen da "ekintza bandalikoek" eragindako kalteak konpontzea (kristalak, atzerako ispiluak eta abar haustea...), baldin eta zerbitzuaren ondorioz gertatzen badira eta aseguruak estaltzen ez baditu.

Mantentze lanetarako proposatzen diren motor olio lubrifikatzaileek ohiko estandar bete beharko dituzte, baina, horrez gainera, ezaugarri hauek izatea baloratuko da:

- Lubrifikatzailearen bizitza erabilgarria, kilometrotan adierazia.
- Biskositate txikiko lubrifikatzailea izatea, alegia, SAEn 0W30 edo 5W30 sailkapena edo baliokidea izatea.
- Amaierako produktuan leheneratutako oinarri olioaren ehunekoa (alegia, olio erabilietatik findua).

Klausula hori baloratzeko, erakunde lizitatzailerak 2. eranskina aurkeztu beharko du. Eranskin horretan, ibilgailu bakoitzean erabiliko dituen motor lubrifikatzaileak eta aipaturiko ezaugarriak jasotzen dituzten orri teknikoak ere zehaztu beharko dira.

Horrez gainera, kontratuak irauten duen bitartean produktu horiek erabiltzeko konpromisoaren adierazpen sinatua gaineratu beharko du, baldin eta, kontratatzailearekin adostuta, beste batzuk erabiltzea erabakitzen ez bada.

Mantentze lanetan proposatutako pneumatikoek C mailako energia eraginkortasuna izan beharko dute gutxienez, eta batez besteko zarata mailak pneumatikoak etiketatzeari buruzko 1222/2009 araudiaren arabera izan behar du.

Horiez gainera, ezaugarri hauek baloratuko dira:

- Energia eraginkortasunean sailkapen hobea izatea (B edo A).
- Zarata emisio hobea izatea, dB(A)-tan.
- Birkautxutako pneumatikoak izatea.
- Lubrifikatzailearen bizitza erabilgarria, kilometrotan adierazia.

Klausula hori baloratzeko, erakunde lizitatzailleak 2. eranskina aurkeztu beharko du. Eranskin horretan, ibilgailu bakoitzean erabiliko dituen pneumatikoak eta aipaturiko ezaugarriak jasotzen dituzten orri teknikoak ere zehaztu beharko dira. Horrez gainera, kontratuak irauten duen bitartean produktu horiek erabiltzeko konpromisoaren adierazpen sinatua gaineratu beharko du, baldin eta, kontratatzailearekin adostuta, beste batzuk erabiltzea erabakitzen ez bada.

Enpresa esleipendunak bermatu behar du mantentze lanetan sortzen diren hondakinak ondo kudeatzen direla, kudeatzaile baimenduen bidez.

Enpresa esleipendunak administrazioko ibilgailuen txosten bat aurkeztu behar du urtero. Txosten horretan, ezaugarri hauek adierazi behar dira:

- Ibilgailu bakoitzaren kilometrajea.
- Zenbat olio lubrifikatzaile litro aldatu diren eta olio erabiliak zer kudeatzaile baimenduri eman zaizkion.
- Zenbat pneumatiko aldatu diren eta pneumatiko zaharrak zer kudeatzaile baimenduri eman zaizkion.

Txostenarekin batera, kudeatzaile baimenduek hondakinak onartuz betetako fitxen kopiak aurkeztu beharko dira, bai eta, eskaintzan adierazi bezala, ingurumenaren aldetik hobeak diren produktuak erosi izana frogatzen duten fakturak.

Eskaintzak ebaluatzeko, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

1. **Eskainitako produktu bakoitzaren ezaugarri zehatzak jasotzen dituen fitxa** (1. eranskina), behar bezala beteta, sinatuta eta zigilatuta. Fitxa horietako bakoitzari gratatuta erantsi beharko dira bete beharreko baldintzak betetzen direla ziurtatzen duen dokumentazioa, baloratutako baldintzat hartzen direnak betetzen direla ziurtatzen duen dokumentazioa (lizitatzailleak horiek betetzeko konpromisoa adierazi badu) eta lizitatzailleak proposatzen dituen bestelako ingurumen ezaugarri batzuk betetzen direla ziurtatzen duena, baldin eta balorazioan kontuan hartzea nahi bada.
2. **Zerbitzua emateko baldintzen fitxa** (2. eranskina), behar bezala bete, sinatu eta zigilatuta. Fitxa horri gratatuta gaineratu beharko dira baloratutako ezaugarritzat hartzen direnak betetzen direla ziurtatzen duten ziurtagiriak (lizitatzailleak horiek betetzeko konpromisoa adierazi badu).

Eskaintza egiten duenaren ardura izango dira baldintza agiri honetan definitutako estandarren eta bestelako egiaztagirien arteko baliokidetasuna frogatzea. Horretarako, baliokidetasun hori modu argian frogatzen duten azterketa teknikoak aurkeztu behar ditu.

## **ASEGURUA.**

Alokatutako ibilgailuek arrisku orotako aseguruia izan beharko dute, prima ltxikoa, alegia, kontratuan zehar kuotak aidatzeko aukerarik ez duena, ez KPIagatik, ez ezbehar

kopuruagatik (bonus/malua). Baztertuta daude autoaseguruak eta frankiziarik gabeko aseguruak. Polizak estaldura hauek izan beharko ditu:

- Erantzun zibil nahitaezkoa
- Borondatezko erantzukizun zibila (50.000.000 €-ko muga)
- Autoak eta kontratuan jasotako osagarriek izandako kalteak
- Talkek eragindako kalteak
- Atxilotuek lekualdatzean eragindako kalteak
- Bidaiariak, defentsa eta kalteen erreklamazioa
- Ibilgailuaren lapurreta
- Ibilgailua erretzea
- Kristalak haustea
- 24 orduko errepide laguntza, 0 kilometrotik.

Gidariari dagokionez, polizak estaldura hauek izan beharko ditu, gutxienez:

- |                          |                           |              |
|--------------------------|---------------------------|--------------|
| <input type="checkbox"/> | Heriotza                  | 50.000 €     |
| <input type="checkbox"/> | Baliaezintasun iraunkorra | 50.000 €     |
| <input type="checkbox"/> | Osasun arreta             | 1.800 €      |
| <input type="checkbox"/> | Lan ezintasun iragankorra | 60,00 €/egun |

Lan ezintasun iragankorra lehenengo egunetik ordainduko da (istripua gertatzen den egunetik), eta hamabi hilabeteko epea izango du, gehienez.

Udaltzaingoaren ibilgailuen ohiko gidaria zehazteko zailtasuna kontuan izanik, lantaldeko edozein kide halakotzat onartuko da, adina edo gidabaimenaren antzintasuna kontuan izan gabe.

Gidariaren ondoan doazen lankideak hirugarrengotzat hartuko dira gidariarekiko. Estaldurak autoen alorreko aseguru konpainia batekin kontratatu beharko dira, eta ez da izango zatikatzeko aukerarik. Erakunde lizitatzailleak proposamen bat gaineratu beharko du, bermeak eta estaldurak zehazten dituenak, hobeto ulertu eta baloratzeko.

#### ZIGORRAK.

Ibilgailuari ezarri ahal zaizkion zigorrei dagokienez, alderdi hauek hartu behar dira kontuan:

- Erakunde alokatzaileak edo esleipendunak ordaindu beharko ditu ibilgailuaren egoeragatik, administrazio dokumentazioagatik eta indarrean dagoen legeriak zehaztutako berrikuspenak ez egiteagatik ezarritako zigorrak.
- Ibilgailua gidatzean jarritako bestelako zigorrak alokatzen duen erakundeak, dagokion administrazioak edo gidariak ordaindu beharko ditu, kasuaren arabera.

#### **ERRENTARIAREN BETEBEHARRAK**

Donostiako Udaltzaingoa bere gain hartzen ditu betebehar hauek:

- Ibilgailuaren berrikuspenera eskatzea, mantentze liburuan zehazturikoaren arabera.
- Edozein matxura jakinaraztea, ibilgailuaren segurtasunari eragiten dion ala ez kontuan izan gabe.
- Ibilgailua esleipendunak berrikuspenetarako edo konponketetarako zehazturiko tailerrera eramatea, baldin eta horretarako aukera badago.
- Esleipendunaren kontura diren berrikuspen edo konponketak gainbegiratzen laguntzea.
- Urtero erakunde alokatzaileari jakinaraztea zenbat kilometro egin diren, alokairuaren ordainketa egokitu ahal izateko. Kilometro kontagailuak akatsa badu, azkeneko hogeita hamar egunetako eguneroko batezbestekoa kalkulatu da.
- Istripu baten ondorioz egindako prozedura orotan aurkeztea, salatzaile, eskatzaile, salatu, demandatu edo lekuko gisa.

#### **4. ARTIKULUA - KONTRATUAREN IRAUPENA.**

Kontratuak bost urteko iraupena izango du, bi taldeetako ibilgailuen kasuan.

Luzapena: urte bete. Erakunde kontratu egilearen nahitaezko luzapena.

Erabateko hondamena gertatuz gero, kaltetutako ibilgailuaren kontratua indargabe geratuko da. Hala, kilometrajea likidatu egingo da, ibilgailuak egindako kilometro kopuruaren eta igarotako denboraren arabera. Une horretatik aurrera, ibilgailuari dagokion fakturak egiteari utziko zaio.

#### **5. ARTIKULUA - ORDAINKETAK.**

Alokairua igarotako hilabete bakoitzeko ordainduko da, aurrez dagokion hilabeteko faktura bidali ondoren.

Kontratua amaitzean, ibilgailu bakoitzak egindako kilometroak eta, baldintza agiri honetako 3.1 puntuaren arabera, egin beharrekoak egiaztatuko dira. Kopuru hori gainditzen duten kilometroak Donostiako Udalak ordaindu beharko ditu, enpresa esleipendunaren eskaintzan kilometro gehigarri bakoitzeko zehazturiko prezioaren arabera. Halaber, enpresa esleipendunak Donostiako Udalarari ordaindu beharko dizkio kopuru horretatik behera egindako kilometroak, enpresa esleipendunaren eskaintzan zehazturiko prezioaren arabera.

## **6. ARTIKULUA - EROSTeko AUKERA.**

**Eskaintza egitean, aukera emango da, kontratua amaitzean, Donostiako Udalak ibilgailu batzuk edo guztiak erosteko.**

Ibilgailu bakoitzaren erosketa prezioa zehaztu behar da, eta, kontratua amaitu arte, ezingo da aldatu prezio hori. Kontratuak indarrean irauten duen bi urteetan, Udalak erabaki eta jakinaraziko du alokatutako ibilgailu batzuk edo guztiak erosteko aukera erabili nahi duen ala ez.

Donostia, 2016ko maiatzak 26

UDALTZAINGOAREN ZUZENDARIA

Sinatua: Mikel Gotzon Santamaria Egia

Udaltzaingoa - Burutza  
Guardia Municipal - Jefatura

Easo, 41 - Tel. 943481302 - Faxe 943481332  
20006 Donostia-San Sebastián

1. ERANSKINA

2. ERANSKINA

